# Presazko Osoko Bilkura Bereziko akta

# Acta de la Asamblea General Extraordinaria de Urgencia

| **Bilduta/ Reunido/as:** | | Akta zbkia. /nº acta **00000002** |
|---|---|---|
| **Hernaniko Udala** | Patxi Ibarguren Etxeberria | Data/fecha **2024/11/26** |
| | Xabier Lertxundi Asteasuinzarra | |
| **Lasarte-Oriako Udala** | Nuria Fernández Castrillo | Iraupena/Duración **30 min.** |
| | Jon Antxordoki Rekondo | |
| **Andoaingo Udaletik** | Andoni Álvarez Lete | |
| | José Mª Iparraguirre Balda | |
| **Astigarragako Udala** | Xabier Urdangarin Lasa | |
| | Ainara Vázquez Martinez | |
| **Urnietako Udala** | Jorge Segurado Iriondo | |
| | Consuelo Frutos González | |
| **Usurbilgo Udala** | Iratxe Begiristain Otegi | |
| | | |

| | |
|---|---|
| **Asistentzia teknikoa/ asistencia técnica:** | Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa, Idazkaria/Secretario |
| | Helene del Rio Laboa, Zuzendaria/Directora |
| | |
| | |
| | |
| **Ez dira agertu eta etorri ezina adierazi dute/no asisten y manifiestan su inasistencia:** | Julen Mungia Gorrotxategi, Idazkari-kontuhartzailea/Secretario-Interventor |

### Gai zerrenda

1.- Lanpostuen Zerrenda (LZ) eta Plantilla Organikoaren (PO) aldaketa onartzea.

2.- Galdera, erregu eta proposamenak.

### Orden del día

1.- Aprobación de la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo (RPT) y de la Plantilla Orgánica (PO).

2.- Ruegos, preguntas y propuestas.

**Behar bezalako quoruma egonda, eta Lehendakaria eta Idazkaria bertan daudelarik, balio osoz eratu da bilkura.**

**Existiendo quórum suficiente y estando presentes la Presidenta y el Secretario, se constituye válidamente la sesión.**

**Aparteko Batzar Orokorra premiazkotzat jotzea**

Aparteko Batzar Orokorra Premiazkotzat jo denez, presidenteak "premiazkotzat" hartzeko eskatu dio Batzarrari, eta Batzarrak aho batez onartu du eskaera.

**Consideración de Asamblea General Extraordinaria de Urgencia**

Dada la consideración de Asamblea General Extraordinaria de Urgencia la Presidenta solicita a la Asamblea la catalogación de la misma como urgente, a lo que la Asamblea responde afirmativamente por unanimidad.

1. **Lanpostuen Zerrendaren (LZ) eta Plantilla Organikoaren (PO) aldaketa onartzea.**

Presidenteak Lanpostuen Zerrendarekin eta Plantilla Organikoarekin gertatutakoak azaldu ditu. Jasotako eskaera tekniko bat (Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa aldatzeari buruzkoa) abiapuntutzat hartuta, azken asteetan negoziazioak egin dira eta akordiora iritsi da. Izan ere, akordio hori bozkatzera etorri gara gaur. Ondorio horietarako, jasota uzten da 2024/11/25ean gai hori langileen legezko ordezkariekin jorratzeko bilerara deitu zitzaiela batzarkideei.

Urnietako ordezkariak eta Mankomunitatearen Gobernu Batzordearen kideak galdetu du nolakoa izan zen langileen legezko ordezkarien iritzia. Horri dagokionez, presidenteak argitu du iraunkortasuneko teknikari lanpostuaren aldaketak ez zuela harrera onik izan (iraunkortasuneko teknikari lanpostua enpresa eta iraunkortasuneko teknikari lanpostu bihurtu zen eta enpresa sailean integratu zen). Dena den, gaineratu duenez, urtebeteko lana alferrik ez galtzeko, iraunkortasun ildoetako zeintzuk mantendu beharko liratekeen pixkanaka aztertzeko beharra aipatu zen.

1. **Aprobación de la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo (RPT) y de la Plantilla Orgánica (PO).**

La Presidenta expone los acontecimientos ocurridos en relación con la RPT y la PO. Adoptando como punto de partida la solicitud técnica recibida sobre la modificación de la RPT y la PO se han celebrado negociaciones a lo largo de las últimas semanas y se ha llegado a un acuerdo. Acuerdo que hoy venimos a votar. A tales efectos, se hace constar que el 25/11/2024 se convocó la reunión correspondiente con la representación legal de lo/as trabajadore/as para tratar el asunto.

El representante de Urnieta y miembro de la Junta de Gobierno de la Mancomunidad pregunta qué valoración tuvo la representación legal de lo/as trabajadore/as. A este respecto, la Presidenta aclara que el cambio en el puesto de trabajo de técnico de sostenibilidad a persona técnica de empresa y sostenibilidad, integrándola en el departamento de empresa, no tuvo buena acogida, ahora bien, menciona que se comentó la necesidad de trabajar paulatinamente qué líneas de sostenibilidad convendrían ser mantenidas para no perder el trabajo

Era berean, langileen legezko ordezkariek kezka adierazi zuten lanpostuak eta beren eginkizunak aldatu nahi zirela langileak kontratatu eta urte eskas batera. Horri dagokionez, argitu da zehaztu zela aldaketa horrek ez zuela ekarriko segurtasun gabeziarik Mankomunitatearen funtzionamenduan; hain zuzen ere, kontrakoa lortzeko egiten da: Enplegu eta Prestakuntza saila eta Enpresa eta Sustapen saila indartzeko.

realizado durante un año. Asimismo, la representación legal de las personas trabajadoras añadió la preocupación de sufrir modificaciones en los puestos de trabajo y sus funciones a solamente un año de contratar a las personas trabajadoras. A este respecto, se aclara que se matizó que el cambio no supone una inseguridad en el funcionamiento de la Mancomunidad, sino que precisamente se acuerda para lo contrario, para reforzar las áreas de Empleo y Formación y Empresa y Promoción.

Akordioa bozkatu aurretik, Lehendakariak azaldu du zein den adostutako Lanpostuen Zerrenda, pantailan bistaratutako taula baten laguntzarekin:

- Enplegu eta Prestakuntza saila ez da aldatuko.
- Enpresa eta Sustapen sailean Enpresa eta Sustapeneko teknikari lanpostu berri bat sortuko da eta Iraunkortasuneko lanpostua aldatu egingo da; izan ere, hemendik aurrera, Enpresa eta Iraunkortasuneko teknikari lanpostua deituko da eta Enpresa eta Sustapen sailean integratuko da, Iraunkortasun sailean integratuta egon beharrean.
- Euskara eta Komunikazioko teknikari lanpostua aldatu egingo da, hain zuzen, Komunikazio eta Harremanen lanpostu bihurtuko da.
- Azkenik, lanaldi erdiko administrazioko langile lanpostua amortizatu egingo da.

Lanpostuen Zerrenda aldatzeaz gain, beste neurri batzuk adostu dira:

Antes de someter el acuerdo a votación, la Presidenta expone cuál es la RPT acordada apoyándose en una tabla expuesta en la pantalla:

- El departamento de Empleo y Formación se mantiene sin alteraciones.
- En el departamento de Empresa y Promoción será reforzado con un nuevo puesto de trabajo de técnico de Empesa y Promoción y con la modificación del puesto de trabajo de Sostenibilidad, que pasa a denominarse de Empresa y Sostenibilidad y a integrarse en el departamento de Empresa y Prmoción en lugar de en el Departamento de Sostenibilidad.
- El puesto de trabajo de técnico de Euskera y Comunicación sufre una alteración, convirtiéndose en un puesto de Comunicación y Relaciones.
- Finalmente, se amortiza el puesto de trabajo de personal administrativo a media jornada.

Además de la modificación de la RPT se han acordado otras medidas:

- Lanpostuen Zerrendan aurreikusitako lanpostu guztiak 2025ean betetzeko konpromiso politikoa.
- Turismo teknikari bat programa bidez kontratatzea.

Esandakoak esanda, presidenteak galdetu du ea inork zerbait esan edo galdetu nahi duen. Ondoren, Lanpostuen Zerrenda berria eta Plantilla Organikoa bozkatu dira eta aho batez onartu dira.

Akordioa onartuta, Lehendakariak gaineratu du Mankomunitateak adostutakoaren arabera jokatuko duela eta honako urrats hauek egingo dituela:

- Aurreikusita zegoen bezala, abian jarriko da Enplegu eta Sustapen saileko bigarren lanpostua 2024ko abenduan betetzeko prozedura.
- Turismoko teknikari lanpostua programa bidez 2025eko urtarrilean sortzeko izapideak hasiko dira.
- 2024ko abenduaren 16an, 12:30ean, Mankomunitateko idazkari kontu-hartzailea bueltan dagoenean, Ohiko Batzar Orokorrerako deia egingo da, Mankomunitatearen 2025eko aurrekontuak bozkatzeko.

- El compromiso político de cubrir todos los puestos de trabajo previstos en la RPT en 2025.
- Contratar una persona técnica de turismo mediante programa.

Dicho lo cual, la Presidenta consulta si alguien tiene algo que añadir o alguna consulta que plantear. Tras ello, la nueva RPT y PO se somete a votación, siendo aprobada por unanimidad.

Habiendo adoptado el acuerdo, la Presidenta añade que la Mancomunidad actuará según lo acordado, dando los siguientes pasos:

- Tal y como estaba previsto, se pondrá en marcha el procedimiento para cubrir el segundo puesto de trabajo en el departamento de Empleo y Formación en diciembre de 2024.
- Se iniciarán los trámites para poder crear el puesto de trabajo de técnico de turismo a través de programa para enero de 2025.
- El 16 de diciembre de 2024, a las 12:30, una vez que el Secretario-Interventor de la Mancomunidad esté disponible, se convocará la Asamblea General Ordinaria para votar los presupuestos de la Mancomunidad para 2025.

Gai Zerrendatik at, Eskari, Galdera eta Proposamenen atalera iritsi aurretik, eta gaia eztabaidatzea premiazkotzat jo ondoren, aho batez –beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin– ondoko erabakiak onartu ziren.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Ruegos, Preguntas y Propuestas, y tras considerar urgente la discusión del asunto, se adoptaron por unanimidad, y por tanto con el quórum de la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea, los siguientes acuerdos.

## 1. Eskari, galdera eta proposamenak

Urnietako ordezkariak eta Mankomunitatearen Gobernu Batzordearen kideak idazkari-kontuhartzailetzak aurrekontuari buruz egiten dituen txosten guztietan zenbateko bera agertzeko eskatu du. Era berean, gaineratu du Foru Aldundiko zuzendaritzatik deia jaso duela eta eskualdeko egoerari buruz galdetu diotela Mankomunitatetik teknikoki informatu dutelako, horren aurrean Hernaniko ordezkariak alderdi barruan ulermen falta izan dezaketela adierazi dio.

Aztertu beharreko beste gairik gabe, presidenteak amaitutzat jo du ohiko bilkura. Idazkariak bilkuraldiari buruzko dokumentu hau idatzita, Lehendakariak irakurri eta oniritzia eman ondoren, biek sinatu dute, indarrean dagoen Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubidearen 110.2 artikuluan xedatutakoa betez. Horren guztiaren fede ematen dut.

## 1. Ruegos, preguntas y propuestas.

El representante de Urnieta y miembro de la Junta de Gobierno de la Mancomunidad solicita que en todos los informes de secretaría/intervención en los que se trate el presupuesto figure el mismo importe. Asimismo, añade que ha recibido una llamada de la dirección de Diputación consultando acerca de la situación en la comarca conocida a través de la parte técnica de la Mancomunidad, a lo que el representante de Hernani le ha respondido que parecen tener un problema de comprensión dentro del partido.

Y sin más asuntos que tratar, la Presidenta levanta la sesión ordinaria. Redactado por el Secretario el presente documento relativo al período de sesiones, con la lectura y visto bueno de la Presidenta, lo firman ambos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Local. Y de cuanto antecede, doy fe.

**O.E., / Vº Bº**
**Lehendakaria/Presidenta**

72512563A MARIA FRANCISCA IBARGUREN (R: Q2000624C)

Firmado digitalmente por 72512563A MARIA FRANCISCA IBARGUREN (R: Q2000624C)
Fecha: 2024.12.09 14:36:48 +01'00'

**Idazkaria/Secretario**

PATXI JAGOBA LAPATZA-GORTAZAR BENGOA - 30683197R

Firmado digitalmente por PATXI JAGOBA LAPATZA-GORTAZAR BENGOA - 30683197R
Fecha: 2024.12.04 13:51:59 +01'00'